

**FANT BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOAREN XIV. EDIZIOA
EGUENEAN ABIATUKO DA, HILAK 8, STEPHEN KING-EN NARRAZIO
BATEAN OINARRITUTAKO "THE MIST" (LAINOA) FILMAREN
ESPAINIAKO ESTREINALDIAZ**

**‘Cadena perpetua’ eta ‘La milla verde’ filmen zuzendariaren azken
lana merkatal estreinaldia egin baino hilabete lehenago iritsiko da
Bilbora**

**Aurreko edizioetan bezalaxe, FANTen barruko atalei esker, Jacques
Tourneur, Jack Clayton, Carl Theodor Dreyer eta Ingmar Bergman
bezalako zinegileen klasikoak berreskuratu eta zinegile gazteen
proposamenik abangoardistenak ezagutu ahal izango dira, film luze
nahiz laburretan**

**Jaialdiaren programa osatuz, Val Lewton egileari buruzko atzera
begirakoa antolatu eta David Lynch eta Lars von Trier-en film bitxiak
pantailaratuko dira, eta Isaki Lacuesta zuzendari gazteak eta Fernando
Velázquez musikagileak ikasgai magistrak bana emango dute.
Velázquezek zinegile gazteen talentua aldarrikatzea xede duen
Fantrobia 2008 saria jasoko du.**

**Jaialdiaren barruan, V. Nontzeflash Animazio Lehiaketa eta IV.
Nontzeberri Fikziosko Laburmetraia-Lehiaketa egingo dira**

**Fantasia giroa hiri osora hedatuko da Jaialdiaren edizio berri honekin
batera antolatu diren ekitaldi paraleloei esker (kontzertuak,
sukaldaritza, zinezaleentzako mahainguruak, master class, etab.)**

INFORMAZIO GUZTIA HEMEN : www.fantbilbao.net

INFO: 010 / 944 241 700

EGOITZAK: CAPITOL ZINEMA ARETOA (sarrera 4€. Abonua 30€. Inaugurazioko
emanaldia: The Mist: sartzeko gonbidapena behar da) / BARRAINKUAKO UDALTEGIA
(sarrera doakoa)

FANT Bilboko Zinemaldi Fantastikoaren XIV. edizioa eguenean, hilak 8, abiatuko da, eta motorrak berotzeko, **Stephen King-en narrazio batean oinarritutako ‘The mist’ (Lainoa) filmaren Espainiako estreinaldia** egingo da. Gainera, Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak antolatu eta maiatzaren 16ra arte luzatuko den lehiaketa honen aurtengo edizioan, Atal Ofizialean lehiatuko diren filmekin batera, generoko film klasikoak, nontzeberri.com kultur atariko film laburren lehiaketako lanak eta dokumentalak pantailaratuko dira.

Fantasia giro hau hiri osora hedatuko da, horretarako antolatu diren ekitaldi paraleloen bidez, **Uriko lokal batzuetan programatu diren kontzertuak eta zinezaleentzako mahainguruak** tarteko direla.

‘The mist’ filmaren estreinaldia

‘The mist’ filmaren zuzendaria Frank Darabont da, lehendik beldurrezko istoriogintzaren erregearen beste narrazio batzuen moldaketak egin izan dituen, ‘Cadena perpetua’ edota ‘La milla verde’ kasu. **FANT inauguratzeko pantailaratuko den filma atal ofizialaren barruan ikusi ahal izango da Capitol zinema-aretoan, 19:45ean hasita.** Sarrerak gonbidapenen bidez banatuko dira, eta Barrainkuako Udaltegian eskura daitezke hilaren 5ean hasi eta sarrera-kopurua agortu arte (udaltegiaren ohiko ordutegian). Gainerako emanaldietarako prezioa 4na eurokoa da, eta emanaldi guztietarako bonoak 30 euro balio du.

Stephen King-ek **bat-batean lainoak estaltzen duen Maine-ko herri baten istorio harrigarria** kontatzen du ‘The mist’ –‘Lainoa’– izenburuko lan honetan. Bertako bizilagunak herritik atera ezinik geratuko dira, eta haietako batzuk supermerkatu baten barruan geratuko dira katibatuta. Hortik ikusiko dute nola irensten duen naturaz besteko laino horrek parean harrapatzen duen guztia, errealitatea deuseztatuz eta ezinegona hedatuz. **Nondik etorria da laino hori? Zer dago lainoaren atzean? Zer gertatzen zaie aterperik aurkitzen ez dutenei?**

Frank Darabont-ek oscar bana lortu zuen ‘Cadena perpetua’ eta ‘La milla verde’ren moldaketei esker. Azken honek film onenarentzako oscarra ere irabazi zuen. Darabont-ek ‘The majestic’ filma ere egin du, eta aholkulari gisa, Steven Spielberg-en ‘Salvar al soldado Ryan’ eta beste film batzuetan

parte hartu izan du. Hauek dira ‘The mist’ filmeko protagonistak: **Thomas Jane** (‘Cara a cara’, ‘La delgada línea roja’, ‘Magnolia’, ‘Boogie nights’ eta ‘El castigador’), **Andre Braugher** (‘Ciudad de ángeles’, ‘Frequency’ eta ‘Los cuatro fantásticos y Silver Surfer’), **Laurie Holden** (‘The Majestic’, ‘Los cuatro fantásticos’ eta ‘Silent hill’) eta **Marcia Gay Harden**, bi oscar irabazi (‘Pollock’ eta ‘Mystic river’) eta ‘Muerte entre las flores’ edo ‘¿Conoces a Joe Black?’ bezalako filmetan ere lan egin duen antzezlea.

Atal ofizialean, hildako bizien azpigeneroaren zaleek, George A. Romero zinegile mitikoaren “Diario de los muertos” filmaz gozatzeko aukera izango dute; baita zinezaleen artean berealdiko ospea lortu duen Park Chan-wook zuzendari korearraren “I’m a Cyborg but That’s OK”, Kroazia, Frantzia eta Espainiako beste zinegile batzuen lanak ere.

Atzera begirakoak, haurrentzako zinea eta rocka

Gainera, atal ofizialean lehiatuko diren filmekin batera, Jaialdiko FANT MAISUAK delako atzera begirakoan, sakoneko erreposoa egingo zaio **Val Lewton** ekoizle eta gidoilari ezagunaren lanari, **Jacques Tourneur-en ‘La mujer pantera’** edo **‘I walked with a zombie’** bezalako klasikoak direla medio. Horrez gain, FANT ERRESKATEAN atalean, Jaialdiak zazpigarren arteko maisulanak pantaila handian ikusteko aukera eskainiko du. Kasu honetan, zinema fantastikoarekin zerikusi zuzena ez duten bi zuzendariren genero honetako lan bitxiak pantailaratuko ditu: **Carl Theodor Dreyer-en ‘La bruja vampiro’** eta **Ingmar Bergman-en ‘La hora del lobo’**.

Programazioa osatuz, ohiko atalak ere antolatuko dira, hala nola, ZINEAREN POZOIA izenekoa, **David Lynch eta Lars von Trier** zinegileei buruzko dokumentalak emango dituen; FANT & ROCK deritzon topagunea, **rock musika** eta beldurrezko zinemaren zaleak elkartuko dituen; FANT LAB, zinema-emanaldiak abandoardiako ekitaldi zirrargarri bilakatu ohi dituen; edota FANT LABURREAN, mundu osoko zinegileei beren **film laburrak** erakusteko aukera eskaintzen diena.

HAUR ZINEA delakoa, berreskuratuko da “Franklin eta lakuko altxorra” filma euskaraz ikusteko aukera eskainiko duena.

Fantrobía saria eta ikasgai magistralak

Zinemaldi Fantastikoa talentu berrien aldeko apustua sendotu nahian dabil aurtengo edizioan. Horrela, edizio honetan hasita, **Fantrobía Saria** instituzionalizatu da, zinemagintzako profesional gazteen ahalegin eta ekarpena adarrikatzeko asmoz.

Edizio honetako golardea **Fernando Velázquez musikari getxoztarrantzat** izango da. Bere eskutik sortutakoa da, besteak beste, iaz Espainiako txarteldegitarakastaririk handiena lortu zuen ‘El orfanato’ filmeko soinu-banda. Jaialdira inguratzen direnek Velázquezekin soinu-bandek Koldo

Serra, Nacho Vigalondo, Juan Antonio Bayona eta beste zinegile batzuen film laburrei egindako ekarpena ezagutzeko aukera izango dute, Capitol aretoan hilaren 15ean pantailaratuko den “El camino al orfanato” atzera begirakoan. Velázquezek Jaialdiaren Amaierako Ekitaldian jasoko du Fantrobía Saria, maiatzaren 16an, barikuz, Capitol aretoan, 20:30etatik aurrera.

Hogeita hamar urte inguru izanda generoan nolabaiteko itzala lortu duten zinegile gazteen lana sustatzeko ahaleginean, Jaialdiak **bi ikasgai magistral** programatu ditu. Lehenengoa, martitzenean, hilak 13, Barrainkuako udaltegian (11,00etan), **Isaki Lacuesta** zinegile katalanaren eskutik egingo da, eta bertan, bere azken lana aurkeztuko du, ‘Marte en la Tierra’ izenburukoa. Bigarren ‘master class’ delakoa (egunean, hilak 15, 11:00etan) **Fernando Velázquezek** emango du, musikak filmei gaineratzen dizkien ñabardurak azaltzeko asmoz.

Nontzeberri gaua

Urtero bezala, amaiera ekialdian, **nontzeberri.com** kultur atarian aurkeztutako proposamenei eskainitako NONTZEBERRI GAUA egingo da, eta bertan, ikusleek **V. Nontzeflash Animazio Lehiaketa eta IV. Nontzefilm Fikziozko Laburmetraia-Lehiaketarako** hautatu diren 20 film laburrez gozatu eta bi lehiaketa hauetako palmaresa ezagutzeko aukera izango dute.

Film hauek munduko herri guztietatik aurkeztu diren 250etik gora film laburretatik aukeratu dira, baina aurtengom garrantzi berezia izango dute Euskal Herritik aurkeztutako lanek (berrogeita hamar baino gehiago). Edizio honetan, gainera, EHUko ikasleen parte-hartzea nabarmendu behar da. Sari berezia izango dute palmaresaren barruan.

Kontzertuak, solasaldiak eta sukaldaritza

Berrikuntza bezala, aurtengom edizioan jarduera paraleloak antolatu dira Uriko zenbait lokaletan: kontzertuak Kafe Antzokian eta Azkenan, eta zinezaleentzako mahainguruak eta menu bereziak (‘Fantfood’ deritzenak) Ambigú jatetxean.

Heavy Trash, Jon Spencer eta Matt Verta-Ray-ren taldea, eta Michigango revival garage-rockaren aitzindari diren **Gore Gore Girls** Kafe Antzokiko inaugurazio ekitaldian izango dira (22.00etan); eta **Santi Ibarretxe** saxo-jotzaileak Primitál bere azken proiektuko soinu bereziak aurkeztuko ditu Azkenan (martitzenean, hilak 13; 22:00etan).

Ambigú jatetxeak (Done Bikendi, 5) **zinezaleentzako mahainguru bi** antolatuko ditu **Isaki Lacuesta eta Fernando Velázquez**en partaidetzaz, hilaren 13an 15ean, hurrenez hurren (17,00etan). Gainera, Jaialdia amaitu arte, zinema fantastikoaren zaleei zuzendutako **‘Fantfood’** delako menua eskainiko du kartaren barruan.

Bilbon, 2008ko apirilak 30.

UDALA • AYUNTAMIENTO

Prentsa Kabinetea – Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48007 Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 48 88 Faxa: 94 420 52 16 H. elek: prensa@alcaldia.bilbao.net

www.bilbao.net